



186. zenbakia

· MAIATZA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Anton Iraizotz eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Basurdetxoaren xendan ibilbidean

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 8an bidalia

Olerkia



"INIZIATUAK"

Iñigo Astiz

“

Su-etena da
elurrak bailaran idazten duen mezua.

Garai batean
neguak ezinezko egiten zuen
ez heriotza,
baina bai eraginkortasuna,
eta eten egiten ziren gerrak
udaberrira arte.

Orain uda da
eta historia liburuetan soilik
jarraitzen dute
soldaduek
ilaratan pasatzen bailara honetatik.

Bost mende dira horretaz.

Izan dira gerra gehiago geroztik,
nahiz eta
ez duten denek gerra izendapenik izan,
eta ez da
apenas haien arrastorik geratzen lurrean.

Iniziatuek dakite oinazea irakurtzen.

Nekazariak
belarretan dabilta lanean orain:
fardotan
biltzen dute zelaia bere baitarantz,
pleguz plegu,
hurrenge baterako
tolestutako mapa bat bailitza.

”



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

izan da! Plazera

Agurra

eskerrik
asko!!

Orrialde honetan despedida idaztea egokitzen zait. Nire zikloa amaitu denaren ustetan, erreleboa ematea tokatzen zait.

2015an iritsi nintzen eskualde honetara, jada ezagutzen eta gustuko nituen bailaretara, urte hauen ostean maitatzera iritsi naizena. Eta bertako jendeari esker izan da hori, zuei esker.

Jende ugari ezagutu dut denbora honetan guztian. Batzuk ezagutzen zintuztedan lehenagotik, beste batzuk lanean ezagutu zaituztet, baina lanaz aparteko harremana izatera ere iritsi gara.

Urte hauetan 45 Pulunpe aldizkari egin ditut, ehundaka artikulua, ehundaka elkarrizketa. Horrek eskualdeko txoko ugari ezagutzera eraman nau, jende ugari eta istorio ugari, eta herri hauek barnetik ezagutzeko ohorea izan dut.

Irratian ere ehundaka elkarrizketa egiteko aukera izan dut. Gorabeherak izan ditu Esan Erran irratiak, ez dakigu zenbat entzule ditugun, ezta zuzenean hitz egiten ari garen bitartean, uhinen beste aldean norbait entzuten ari den ere. Bakardade sentrazioa sartzen zaigu momentu horietan Jauntsarasko estudio txikian, baina eskerrak eman behar dizkizuet elkarrizketa egitea onartu duzuen guztioi, irratiak aurrera egitea lortzen baitugu horrela.

Eta amezti.eus webgunea martxan jarri dugu denbora honetan. Lan handia suposatu digun apustua, zerotik, ezerezetik hasia. Eta eskualde txiki honetan euskarazko hiru komunikabide izatea lortu dugu, eta aurrea jarraituko dute, erreleboa hartu didatenean esku honetan geratzen baitira.

Baina denon esku dago komunikabide hauek aurrera egitea, eta beraz euskarak normalizaziorako pausoak egitea gurean. Komunikazioa zinez garrantzitsua da helburu horren bidean, eta gomendio bat emateko aukera badut, ez utzi galtzen daukazuen altxor hori.

Gehiegi luzatu gabe, berriz ere eskerrak eman nahi dizkizuet lerro hauek irakurtzen ari zareten guztiei, lagundu nauzuenoi eta irribarre batekin hartu nauzuenoi. Ez da agur bat, elkar ikusten jarraituko dugu, oraingoan mikrofonorik eta argazki kamerarik gabe.

Gaizki esanak barkatu eta ongi esanak gogoan hartu!

Gora Anue! Gora Atetz! Gora Basaburua! Gora Imotz! Gora Lantz! Gora Odieta! Gora Ultzama!

Lur.






Udal Hauteskura

M26an

Agrupación Burdindogui zerrenda berriak irabazi du Anuen

MIGUEL ÁNGEL LARRAYOZ IZANEN DA ALKATE ANUEN, 172 BOTO ESKURATUTA, %65.



Anue



Egun alkate den Mainer Ochandorenaren zerrenda atzera botatzeko asmoa zuten Agrupación Burdindoguiaren zerrenda aurkeztu zela ikusita; beste zerrendarik ez zegoelakoan bakarrik aurkeztu baitziren. Azkenean, ordea, aurkeztu egin dira eta bi zinegotzi lortu dituzte botoen ia %34 jasoz.

Kontzejuak:

EGOZKUE

Egozkueko Batasuna

- 1. Inaki Munoz Oroz (13)

ETULAIN

Etulain


- 1. Jon Pascal Egozcue (19)

LEAZKUE

Vecinos de Leazkue

- 1. Eugenio Oria Mundin (8)

Beste lau urtez gobernatuko du EH Bilduk Atetzen



Atez

Aurrekoetan ez bezala, EH Bildu bakarrik aurkeztu da Udal Hauteskunde haueetan eta haiek izanen dute alkatetza. 56 bozka lortu dituzte, eta Josu Arriaga izanen da alkate beste hiru zinegotzirekin.

Kontzejuak:

AROSTEGI

Independientes de Arostegui

- 1. Lorenzo Cañamares Aldareguía (21)

ZIGANDA

Zigandako Herria

- 1. José María Ibero Baraibar (11)

BERATSAIN

Independientes de Berasain

- 1. Aitor María Ezgózcue Guerendiáin (15)

Herrikoak

- 1. Cristóbal Ollo Lizaso (10)

BEUNTZA

Beunza Dos

- 1. Mikel Eugui Ilundáin (26)
- 2. Eneko Eugui Subiza (22)
- 3. María Aránzazu González Cenoz (20)

Beunza Uno

- 1. María Luisa Azpíroz Iturri (18)
- 2. Iranzu Azpiroz Erviti (18)


ERITZEGOITI

Eritzegoiti (Gie)

- 1. José María Larrañegui Tirapu (9)



Basaburuan, Esther Lakasta berrizendatu dute alkate



Basaburua

2015ean baino boto gehiagorekin, Basaburuko EH Bilduk eta egungo alkate Esther Lakastak errepikatuko du. Parte hartze handia izan da, kontuan hartuta zerrenda bakarra aurkezten zela, %73,54koa. 7 zinegotzi hauek izanen dira EH Bildurenak: Santos Etxegia, Xabier Azpirotz, Marimar Ansorena, Ricardo Arangoa, Olatz Dorai eta Julen Beunza.

Kontzejuak:

ARRARATS

Otsola

1. Miren Josune Ripalda Zubieta (18)
2. Miguel Ángel Oscoz Arce (16)
3. Carmen Mariezcurrena Unanua (10)
4. Yolanda Arribas Jimeno (8)
5. José María Arangoa Riezu (1)

BERUETE

Ireber

1. Ascensio Indakoetxea Arangoa (48)
2. Martín Arano Lampreabe (38)
3. Nicolás Barberena Echarri (30)
4. María Pilar Ochotorena Arangoa (29)
5. Amaia Recondo Azpilicueta (26)

GARTZARON

Lauxti

1. Amaia Legarra Beunza (39)
2. Eneko Legarra Beunza (38)
3. Joseba Satrústegui Tellechea (33)
4. Santiago Espinal Tellechea (20)
5. Agustín Tellechea Oscoz (8)

ITSASO

Untzategi

1. María Luisa Mariñelarena Cía (22)
2. Agustín Beloqui Percas (19)
3. María Carmen Madoz Zubillaga (11)
4. Juan José Mariñelarena Cía (11)
5. José Antonio Gamboa Andueza (4)

IGOA

Isisti

1. Andoni Mariezcurrena Beunza (38)
2. Aingeru Etayo Oronoz (34)
3. Eñaut Marticorena Arbilla (23)
4. Sarai Etayo Oronoz (23)
5. Amaia Arano Nagore (20)

IHABEN

Ihabendarrak

1. Alejandro Martínez Arana (16)

Ihabengoak

1. Javier Ignacio Beunza Larumbe (15)

UDABE-BERAMENDI

Erlain

1. Imanol Biurrarena Barrenetxea (36)
2. María Pilar Mayorga Goorchategui (23)
3. Frantziska Urritza Satrustegi (23)
4. Inmaculada Fernández Vicuña (23)
5. Jesús María Álvarez Sarasola (8)



OROKIETA-ERBITI

Aizarbil

1. Iñaki Balda Alsua (28)
2. Nerea Oiz Marina (20)
3. Mikel Jaunarena Goicoechea (18)
4. José Antonio Sánchez Lorente (17)
5. Jesús María Balda Pérez (9)



Imotzen EH Bildu berriro, boto gehiagorekin



Imotz



Aurrekoetan baino 15 boto gehiago lortu du Imotzen aurkeztutako zerrenda bakarrak, eta Alfredo Alzueta izanen da alkatea.

Kontzejuak:

ETXALEKU

Azkorrea

1. Urko Carrera Iguelz (38).
2. Juan Ignacio Beloqui Yaben (31).
3. Idoia Astiz Landiribar (31).
4. Mikel Iriarte Ollo (19).
5. Martín José Aldareguia Iguelz (14).

ERASO

Malaun

1. Javier I. Beaumont Caminos (21).

LATASA

Txurregi



1. Aritz Gorostiaga Eskubi (38).
2. María Aranzadi Barbería (16).
3. Roberto Salvador Otazu (8).
4. Alejandro Saralegui Díaz (7).
5. Etor Ijurco Saralegui (5).

OSKOTZ

Arpelu

1. Joseba Gartzaron Zudaire (19).

Odietan Alberto Urdaniz alkate, baina bi talde izanen dira Udalean




Odieta



Botoen ia %70 lortuta, Alberto Urdanizek jarraituko du alkate beste lau zinegotzirekin. Dena den, zinegotzi bat galdu du eta Odieta Martxan zerrenda berriak bi zinegotzi lortu ditu, bostzen %28 lortuta.


Isabel Baleztenak jarraituko du Lanzko alkatetzan



Lantz

%75eko parte hartzearekin, aurkeztu den talde independente bakarreko Isabel Baleztenak beste lau kideekin kudeatuko Lanzko Udala.

Alkatetza berretsi du EH Bilduk Ultzaman, boto gehiagoren aldearekin



Ultzama



Botoen %53 lortu du EH Bilduk Ultzaman eta Martin Pikabea zerrendaburua izanen da alkate. Aurreko hauteskundeetan baino bozka gehiago lortu ditu taldeak, eta guztira 5 zinegotzi izanen ditu.

Patxi Perezek gidatutako Agrupación Ultzamak, bestalde, 4 zinegotzi lortu ditu, botoen %41ekin. Ultzamako zerrendaburuak, baina, eserlekua eskuratu du Nafarroako Parlamentuan Na+ koalizioarekin.

Kontzejuak:

GERENDIAIN

Gerendiango Taldea

1. Martin Picabea Aguirre (30)
2. Mikel Beunza Urtasun (28)
3. Elena Tornero Recasens (25)
4. Oscar Mario Aller Marañón (16)
5. Juan Gabriel Ros Sagardia (15)

ILARREGI

Lartzabal

1. Ambrosio María Elizalde Urtasun (24)
2. Silvestre Ramoneda Oscariz (13)
3. Miren Belate San Julian Erbiti (13)
4. Aitziber Razquin Jaca (9)
5. Jose Javier Urdaniz Irurita (8)

LARRAINTZAR

Concejo de Larraintzar

1. Miguel Echeverría Valcarlos (50)

2. Yaiza Mendive Gascue (45)
3. Jesus Espelozin Larrayoz (38)
4. Fernando Echeverría Valcarlos (29)
5. Antonio Gascue Larraya (29)

URRITZOLA

Urritzolako Taldea

1. Iñaki Ezkurra Osacar (32)
2. M^a Rosario Legarrea Razquin (13)
3. Jenaro Erasun Erasun (12)
4. Pablo Marqués Ferrer (11)
5. Juan José Beunza Urrutia (5)

ZENOTZ

Zenotz Herria

1. Itziar Irure Ibero (14)
2. María Concepción Cenoz Iraizoz (9)
3. Pablo Cenoz Iraizoz (8)
4. Edurne Etxeberria Garate (8)



Artilea biltzeko edukiontzia izan dute Ultzamako artzainek

Iraizotzeko poligonoko baskulan egon da hiru astez artile soberakinak botatzeko edukiontzi berezia. 500 ardi ingururen artilea bildu dute bertan, eta behin ontzia beteta Artaxoara eraman dute han deskargatzeko.

Garai batean lehengai preziatua bazen artilea, gaur egun arazo bilakatu da artzaintzat. Ardiei ilea moztu eta gero artile guzti horrekin zer egin ez dakitela gelditzen dira, eta askotan soluzioa erretzea izaten bada ere, Ultzamako basozainak azaltzen du mendian eta erreketan agertu izan direla azken urteetan artile soberakinak. Arazo horri irtenbidea emateko asmoz jarri dute aurten edukiontzi berezia Iraizotzen. "Artzainek eskertu dute edukiontzia jarri izana, lasaitasuna da beraientzat", adierazi du Etxekolonea basozainak.



artilea edukiontzi ▲

Gartzarongo pilota txapelketan izen emateko epea zabalik

Pilota txapelketaren 35. edizioa antolatu du aurten ere Gartzarongo (Basaburua) Toki Alai klubak.

Uztailaren 20an hasiko da txapelketa, baina parte hartu nahi duten pilotariek ekainaren 28a baino lehen eman beharko dute izena tokialaipilota@gmail.com helbidera idatziz edo 659 443 664 telefonora deituz.

Sei kategoria ezberdin izanen dira txapelketan:

- Umeak (alebinak), 2007-2008 urtekoak
- Haurrak (infantilak), 2005-2006 urtekoak
- Gaztetxoak (katedeteak), 2003-2004 urtekoak
- Gazteak (jubenilak), 2001-2002 urtekoak
- Neskak, 13 urtetik gorakoak
- Helduak (seniorrak), 2001 baino lehenagokoak



Gartzaronen izandako partida baten irudia ▲

Kirol udalekuak antolatu dituzte Ultzamako Zerbitzu Sozialen Mankomunitateak eta Izarpe Kanpinak

6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta egonen dira kirol udalekuak, eta Aroztegiko (Atetz) Izarpe Kanpineko instalazioetan egingen dituzte ekimenak.

Uztailean eta abuztuan izanen dute eskualdeko gaztetxoek udalekuetan parte hartzeko aukera, asteka. Astelehenetik ostiralera goizero elkartuko dira kanpinean kirolarekin lotutako ekintza ezberdinak egiteko.

Udalekuetan izena emateko ez da beharrezkoa haurrak Ultzaman errolatuak egotea. Epea zabalik da jada, ekainaren 26a izanen da azken eguna. Parte hartu nahi duten haurrek 50 eta 80 euro artean ordaindu beharko dute asteko.



Kirol udalekuen kartela ▲

40 segalarik parte hartu zuten Udabeko sega txapelketan

Osotara 40 segalarik parte hartu zuten maiatzaren 6ko txapelketan. 13 gizonetzko eta 12 emakumezko helduetan, eta 7 neska eta 8 mutiko gaztetxoek mailan. Basaburuko lauk hartu zuten parte: nesketan June Mikeok eta Mutiletan Jokin Mikeok, Martin Etxarrik eta Xabi Beaumontek.

Udabeko zelaian izan zen sega txapelketa, Austrian abuztuan izanen den Europako txapelketarako puntuagarria. Nesken sailkapenean Maider Garmendiak egin zuen denbora laburrenean; mutilen artean Jokin Mikeo basaburuarrak irabazi zuen; emakumezkoen sailkapenean Alaitz Imazek; eta gizonzkoen artean, Bixente Mitxelenak.

Urtero egiten da sega lehiaketa, urte batean Imotzen eta hurrengoan Basaburuan. Aurreko urtean Etxalekun egin ondoren, aurten Basaburuaren txanda zen, Udabe eta Beramendiren arteko zelaietan egin zen.



Basaburuko gazteek lan polita egin zuten Udaben. ▲

De Rerum Natura

@zaldierox





Urez bustitako BTT martxa

Urteroko zitari eutsi eta Basaburuko BTT martxa egin zuten maiatzean, oso eguraldi kaxkarrarekin. Hala ere, egun polita izan zen eta martxa aurrera ateratzea lortu zuten.

Egun gogorra izan zen Luisito Mariezkurrenaren esanetan. “7:30ean elkartu ginen antolatzaileok, eta probaren irteera ordubete atzeratzea erabaki genuen. Ez zen posible ibilbide luzea egitea, puske askotan dena urekin hartua baitzegoen. Azkenean, jendearekin hitz egin eta gero, 20 kilometroko ibilbidea egitea erabaki genuen. Oso jende jatorra etorri zen, eta konforme zeuden erabakiarekin. 40 bat izan ziren, izan genuen eguraldi makurrerako, jende asko.”

Amaieran oso giro polita izan zen, eta Lusitok eskerrak eman nahi dizkie boluntario guztiei eta bertaratutako txirrindulariei. Toledoko bat omen zegoen apuntatua, baina eguraldiaren eraginez ez zen bertaratu.

Asier Juanbeltz beruetarra izan zen azkarrena beste behin ere, baina gertu izan zituen Ricardo Ariztegi suarbearra -bigarren- eta Alberto Sarasa muskiztarra. Asierrek hauxe kontatu digu:

“Hasierako km teknikoetan lehengo jarri nintzen eta lehendabiziko selekzioa egin zen; 4 txirrindulari gelditu ginen lehengo postuetan. Aizarotz herria pasa eta igoera gogorrean lokatzaren ondorioz bizikletatik jaitsi eta korrika, oinez eta ahaal zen bezala aurrera egitea tokatu zen. Hor Suarbeko Rikardo eta Muskitzeko Albertok aurrera jo zuten, gainontzekoak atzean utziz. Ondoren, Erbitiko pistako igoera luzea etorri zen, eta oraindik eta urrunago jo zuten; ni beste txirrindulari batekin geratu nintzen, baino atzetik beste bat etorri eta pasa egin zigun, urrunegi joan gabe ere, beti bistan baikenuen.

Abituailamentua iritsi ondoren jaitsiera teknikoa heldu zen; hor argi neukan aurrekoari pasa behar niola jaitsiera libre egin eta Rikardo eta Albertorengana



Halako putzuei aurre egin behar izan zieten txirrindulariek ▲

gerturatzeko. Dena eman eta pasa egin nion lehena sartzeko, azkenean arriskatu eta jaitsiera bukaeran elkartu nintzen beraiekin. Ihabengo usatokitarako igoera hasten zenean elkarrekin ginen, baina gora iritsi aurretik metro oso tekniko batzuk pasa behar genituen baso zabalean, eta hor metro batzuk hartu nituen, igoera bukatu aurretik mantendu eta Ihabenera eramaten zuen jaitsieran segundo batzuk gehiago hartu nituen. Horrela Jauntsaratseraino lehengo iristeko tartea eman zidan.

Argi geratu zen fisikoki bi hauek ni baino indartsuago daudela eta kondizio normaletan beste era batera iritsiko ginela, azkenean denbora kaxkarrak lagundu egin zidan eta arriskatuz irabazi nien. Esan beharra dago ere izugarritzko meritua izan zutela irten ziren beste txirrindulari guzietan, kondizio ikaragarri txarrak baitziren, kriston euritea, putzu handiak eta hotza... parte hartu zuten guztiei zoriontzen dietet.

Eskertu nahi nuke bailarako pertsona guzietan jartzen duten borondatea eta horrelako eguraldiaren ondorioz gure bailarako proba aurrera ateratzeko egin zuten lana. Azkenengo aldaketak ederki atera ziren, inongo arazorik gabe, eta hori elkarlan onari esker da.”



BTT martxaren irudi bat ▲

Larreak irekita, gure mendietan dira dagoeneko abereak

Udaberriarekin batera hasi da pixkanaka eguzki giroa nagusitzen eta badoaz inguruko mendiak berdetzen. Aziendak ukuiuletatik mendietara ateratzeko tenorea izanik, maiatzaren 15ean ireki zuten horretarako epea Ultzaman: behi, ardi, eta behorrek beteko dituzte eskualdeko belardiak heldu diren hilabeteetan.

Herrilurrak bazkalekutarako erabiltzen dituzten abeltzainek abenduan eta urtarrilean eman behar izan zuten izena udal bulegoetan, Jon Etxekolonea Ultzamako basozainak azaltzen duenez: “Ganaduaren errolda egiten dugu modu horretan, abereak mendira nola eraman antolatuta ahal izateko”.

Aurten 80-90 behi inguru, beste horrenbeste behor eta 500 bat ardi botako dituzte eskualdeko abeltzainek. Abere bakoitzak bazkatzeko bere tokia izanen du, dena den: Belateko eskuinaldean, ermita aldean, behiak eta ardiak soilik egonen dira, eta beste aldean, berriz, behorak eta ardiak. “Bazka kontuak ez nahasteko banatzen ditugu aziendak zonaldeka”, dio basozainak.

Ultzamako Udala arduratzen da urtean lur komunal horietan egin beharreko kudeaketa eta mantentze-lanez: “Kudeaketa eta mantentze-lanak egiten ditu Udalak, esaterako, itxiturak eta hesi guztiak erreparatu eta konpontzeko lanetan aritu gara aziendak bota aurretik”. Lan horiek udaleko langileek eta abeltzainek elkarlanean egiten dituztela azaldu digu basozai-

nak. Belarra prestatzeko ere sasiak kendu eta neguko erreketak egiten dituzte. “Zezeneko larrean eta Larrebeltzen egin ditugu aurten erreketak kontrolatuak, osotara 22 hektareako lursailetan. Ikusi dugu jada berdatzen hasiak direla larre horiek”.

Lur komunalen eta horien erabileraren inguruan ere aritu zaigu basozainak. Alde batetik, Ultzamako Mortua mendia dago, 3.200 bat hektareakoa, kontzeju guztien herrilurra dena. Pagoa da inguru horretan nagusi, baina alertzeak, izeiak eta hariztiak ere badaude, azken hauek beheko partean batik bat. Azienden bazkalekuetako lurrak 160 hektarea inguru direla azaldu digu Etxekoloneak, horietatik 120 inguruk dituzte itxiturak. “Ultzaman erroldatutako edozeinek erabiltzen ahal ditu lur horiek bazkalekutarako. Ganaduarentzako erabiltzen ez diren lurrak Udalak darabiltza egurretarako, baina oso kontrolatua dago zenbat egur atera daitekeen, mendiak dituen aukerak inoiz ez pasatzeko”.

Mendiak eta larreak garbi mantentzeko funtzio garrantzitsua betetzen dute abereek. “Mato-rrala gutxitu eta belar gehiago ateratzen da aziendak dabiltzan inguruetan. Behar-beharrezkoa da ganadua beti ezagutu izan ditugun mendiko bazkaleku horiek egoteko”, dio Etxekoloneak. Azken urteetan ganadu karga intentsiboagoa izan arren, eskualdean duela hogei urteko azienda kopuru antzekoa dugula azaltzen du basozainak.



▲ Zaldiak Ultzaman



iritzia



Edurne Begiristain,
Berria egunkarian

Hamabost egun ez omen dira nahikoa

2019ko maiatzak 23

Hauteskunde kanpaina hasi berritan eta elkarrizketa hasi aurretik, kazetari honek Miren Larrion EH Bilduko Gasteizko alkategaiari galdetu zion ez ote zitzaion luzeegia egiten kanpaina, ea bost egunekin ez ote zen nahikoa esan beharrekoa esateko. Ezetz erantzun zion Larrionek, irmo; beharrezkoak zirela hamabost egun horiek euren proposamen guztiak herritarrei ongi azaltzeko, jendeari pultsoa hartzeko, zalantzatiak erakartzeko, herritarrak botoa ematera bultzatzeko. Sentsazio kontu batzela. Kanpainak aurrera egiten zuen neurrian egiten zuela gorantz mezua helarazteko griñak, boto emaileekiko feeling horrek, eta horregatik uste zuela batzutan motz geratzen zirela bi aste horiek. Eta egun gehiago luzatzea ez lukeela gaizki ikusiko.

Ziur naiz Larrionen hausnarketarekin bat etorriko direla alderdi politiko gehienetako hautagaiak. Baina, nago, herritar askoren —eta kazetari batzuen— iritzia oso bestelakoa dela. Luzeegiak egiten zaizkigulako kanpainak. Saturazio puntu bat dugulako. Nahi ala ez, propaganda bonbardaketa izugarria sufritzen dugulako. Eskatu gabe jasotzen dugulako. Etenik gabe.

Hainbat ikerlanek erakutsi dute boto emaileen erabakietan oso eragin txikia dutela kanpainak, eta, batez ere, egindako hautua berresteko balio izaten dutela. Hori lortzeko, proposamenek baino garrantzi handiagoa izaten dutela hautagaiek transmititzen dituzten jarrerak eta sentsazioak. Horretarako bada ere, hauteskunde kanpainak egiten jarraituko dute. Benetako kanpaina, hala ere, aspaldi hasi zuten alderdiek, eta igandeko emaitzek argituko dute ereindako haziak fruitua eman dien.

Eguraldia kontra izan arren, Santurbe erromeria errepikatu zuten aurtengoan ere



Baseliza barnean bazkaldu zuten odietarrek ▲

Hauteskunde eguna goibel esnatu zen, eta euria izan zen Santurbe baseliza inguruan. Dena den, Odietatik zein Xulapaindik dozenaka lagun hurbildu ziren, horietako asko oinez paseoa emanaz.

Giro polita izan zen goizean, eta hainbat postu ere izan ziren baselizaren kanpoaldean. Langarra ere bota zuen goizean, baina eguerdi partean euri bortitzagoa hasi eta baselizaren barruan bazkaldu behar izan zuten Ziurriz eta Erripatik hurbildutakoek. Anotzibar eta Gaskuekoak herrira jaitsi ziren bazkaltzera.

Bazkalostean Los Andus taldea aritu zen soinu mexikarrak jotzen, eta amaitzean oinez bueltatu ziren gehienak etxera.

Adineko jendearendako lokala martxan da Jaunsaratsen



▲ Hurbildutakoek Apeztegerrian egin zuten otamena

Maiatzaren 9an, egin zuten ate irekitze jardunaldia Jaunsaratsen martxan jarri berri duten adinduendako gunean. 40 lagun inguru bildu ziren Apeztegerri dendaren gainean kokatutako lokalean.

Nafarroako Gobernuak zahartze aktiboa promozionatzeko sortutako bideo proiektioaren ondoren, Basaburuako Esther Lakasta alkateak hartu zuen hitza. Lokalaren lagapenarekin Udalak adinduekin zeukan zorra kitatzeko helburua izan duela adierazi zion Lakastak hurbildutakoek.

Gunearen eta bere funtzionamenduaren inguruko xehetasunak eman eta gero, udalerriko adinekoei bertan parte hartzeko dei egin zion udal ordezkariak. Oraingoan, podologia zerbitzua jarri dute martxan Marta Francesekin: ekainaren 4an izanen da hurrengo eguna. Aurrera begira, ordea, zerbitzu gehiago ere abiatzeko asmoarekin dira gunearen bultzatzaileak. Fisioterapia zerbitzua eta erorketen prebentzioaren inguruko ikastaroak dituzte esku artean, besteak beste.

Rosarendako kantua

(Anton Iraizotz)

Airera jauzi egin zuen
Buztan astinaldi bortitz batez,
Airera jauzi egin zuen
Balea urdin handiak.
Hain izan zen indartsua jauzia
Airean zintzilaturik baitzen gelditu

Lipar batez,
Eder eta distirant,
Milaka tximeledek,
Urdinak eta xuriak,
Eutsiko balute bezala.

Eta Mundua behatu zuen
Eta mendiak eta ugaldeak
Ikusi zituen,
Eta hiriak eta herriak begiratu,
Animaliak eta gizakiak
Eta anai-arrebak,
eta behatu
Bere begi sakonez
Eta beren garunak zituen

Igaro...eta beren bihotzak zituen
atzeman.

Eta orduan, ahokada luze batez,
Bere soina astinduz,
Itsaso barneraino murgildu zen,
Ez tentelen itsasoan,
Bere ametsen itsasoan baizik,
Bere fantasien ozeanoan.
Non zaude Rosa? Nora zoaz?

Zure senideen aholku bat:
Bila ezazu Paikea,
Neskato maoria, baleen gidaria,
Historia ederrak kontatuko dizkizu.



▲ Rosa Iraizotz, zendu berria, Alkozko Marimigelenekoa, Orkingo haritz handiaren babesean.



Analfabetoa

Europa Mendebaldeko mapa berezia

Iñigo Astitz iraziozarrak Analfabetoa poema liburua argitaratu berri du Susa argitaletxearen eskutik. Ultzaman dugun Abautza kobazuloan aurkitutako Europa Mendebaldeko maparik zaharrena du abiapuntu, eta, haren antzera, bizi dugun garai globalizatua ondorengoei azaldu nahi die. Egitura harrigarria baliatzen duen Analfabetoa irakurtzea merezi du, Susa argitaletxeak inprenta gelditzea eta denboraz kanpo jasotako poema bat gehitzea merezi izan zuen bezala.

• NOLAKO HARRERA EGIN ZAIO LIBURUARI?

Polita izan da etxeko ordenagailuan gordeta nuena kalera ateratzea. Sentsazioa arraroa da, idaztearena era intimoan egindako zerbait baita, eta bakarrik egiten duzun hori bat-batean jendeak ikusten du. Jendeak hitz politikak idatzi dizkit, gustatu zaiela esan didate eta jende asko identifikatua sentitu da poema batzuekin; beraz, pozik.

• HEMENDIK GERTU DUGUN ABAUNTZ KOBAZULOAN DAGO, NOLABAIT, LIBURUAREN ABIAPUNTUA, EZTA?

Bertan topatu zuten Europa Mendebaldeko maparik zaharrena, harri batean, duela 13,600 urte egindako irudiak.. Nik neure buruari galdetzen nion zertarako egin zutenlan ere, ez da gaur egun bezala, autoa hartu, eta sekula zapaldu ez duzun edonora joaten ahal baitzara. Pertsona hark egunero zapaltzen zuen inguru hura marraztu nahi izan zuen, eta ez zuen inolako beharrik horretarako. Mapa hori ez zen berarentzat, ondoren zetozenendako zen. Bertan bizitzea nolakoa zen azaldu nahi zuen mapa horren bidez. Sentsazio indartsua iruditu zitzaidan, eta liburua hortik abiatu nahi izan nuen.

• BERAZ ORAINALDIA AZALTZEN SAIAITZEKO IDATZI DUZULA

ESATEN AHAL DUGU, NOLAKOA DA ORAINALDIA IÑIGO ASTITZ-ENDAKO?

Pentsatzen dut gainontzeko edonorendako bezala, nahiko ulertezina, horregatik Analfabetoa izenburua. Harridura eta kezka horiek guztiak eraman ditut, baita poza ere, kaos horretan ulertzen duzun zerbait edo ederra iruditzen zaizun zerbait aurkitzen duzunean.

• BERAZ, NAHIZ ETA EZ BETI ULERTU, ATSEGIN AL DUZU ORAINALDIA?

Beno, bai edo ez bozkatzeko erreferenduma eginen bagenu, ezetz esango nuke (barreak). Katakrakekoek esaten duten bezala hau guztia aldatzera gatoz; baina, era berean, hori da daukagun abiapuntua. Indiako filosofo batek esaten zuen antzera, itsasoan doan barku baten barnean egin behar dugu lan, itsasontzi horrek dituen matxurak itsasontziak berak duen materialarekin konpondu behar direla. Hau da, barku hori konpontzeko duzun material bakarra barkua bera da, eta erabaki behar duzu mastaren zati bat kendu behar duzun zulo bat tapatzeko edo ez.



Iñigo Astiz ultzamarra ▲



• ABAUNTZEN AGERTUTAKO MAPA HORRETAN, BEHARBADA, GARAI HARTAN INGURU HORRETAN ZEUDEN ARRISKUAK AGERTZEN DIRA. ZUK GAUR EGUNGO ARRISKUAK ZEIN DIRELA USTE DUZU?

Abaunzko kobazuloko pertsona hark ibaiak marraztu zituen, ura non dagoen erakusteko; basoa marraztu zuen hor zerbait egon zitekeela adieraziz; arriskuen eta aukeren mapa bat egin zuen. Ni gauza bera egiten saiatu naiz, baina erabat ezberdina den hiztegi batez. Ekonomia globalizatu honetan kodeak zein diren jakitea, dirua eta bizitza mugitzen duten kode horiek ezagutzea, garrantzitsua da. Batzuetarako zer lurraldetara egiten ahal duten ihes jakitea ezinbestekoa izaten ahal da. Liburuan austeritate legea aipatzen da, Ikea, itsasontzi honetatik ikusten dudana kontatzen dut, gaur egungo mundu surrealista honetan dagoena.

• ETA MUNDU SURREALISTA HONETAN BARNA, LIBURUA IDAZTEN ARI ZINELA, AITA IZANEN ZINELA JAKIN ZENUEN...

Bai, hortik ere paralelismoa, Abaunzko pertsona hark nola egin zuen mapa, nik antzera egin dut liburuko azken poema, etorkizunean biziko den jendeari zuzendua, kasu honetan, nire semearendako, non dauden gaur egungo arriskuak, munstroak, eta non dauden gaur egungo gauzazoragarriak adierazteko.


• POEMA BAKARREAN AZALDU DAITEKE XXI. MENDEA?

Ez, noski (barreak). Borgesek badu ipuin bat non enperadoreak mapa bat egiten duen bere lurraldea irudikatu nahian, eta lurraldearen tamaina bereko mapa egiten du, ez duelako xehetasunik galdu nahi. Hau da, bere lurraldeko kilometro karratu bakoitzak kilometro karratu bat hartzen du

mapan. Baina, noski, horrek erabilezin bihurtzen du mapa. Nire mapa erabat prekarioa da, ez dio inori balioko XXI. mendea ulertzeko, baina ezin hori neure buruari jarrita ateratako poema da.

• KURIOSOA DA POEMEN IZENBURUAK IRAKURTZEA: TXINATAR DENDA, OPUS DEI..., IDAZTEKO PROZESUA NOLAKOA IZATEN DA? OPUS DEI POEMA IRAKURRITAKOAN KALEAN ZEUNDELA IDATZITAKO EMATEN BAITU...

Izenburuak idazterakoan oso ongi pasatzen dut. Poema behin idatzita izenburuak aldatzen ibiltzen naiz (barreak). Bai, oso kirol arraroa da poesiarena. Boligrafoa hartuta paperean idazten ez hainbeste, baina buruari eragiten denbora pila pasatzen dut. Adibidez Opus Dei poeman Opuseko mutiko talde handi bat errugbian jokatzeko ikusi, eta ia-ia poema osoa autobusean bertan atera zitzaidan. Baina, hori salbuespena izan zen, normalean ideia bat izaten dut buruan bueltaka eta, buelta pila eman ondoren, badudala sentitzen



▲ Asier Mendizabalek diseinatu du *Analfabetoa* liburuaren azala

dudanean, orduan idazten dut. Argi ikusten ez badut, ordea, ez dut paperera pasatzen.

• PROZESUA BIZIA IZAN DELA AIPATU DUZU, NOIZBAIT...

Bai, liburuarena oso bizia izan da. Azaroan bidali nuen argitaletxera hasierako zirriborroa, eta maiatzean atera da. Baina azkeneko momentura arte ibili gara poemak lekuz aldatzen, poemak berak aldatzen, sartuzenazken poema azken-azken momentuan izan zen. Liburua inprentan zegoela, beste poema bat etorri zitzaidan burura eta argitaletxera bidali nuen. Eta hara non argitaletxeak inprentara deitu, eta makinak gelditzeko eskatu zuen, poema hura liburuan sartu zedin. Anekdotak erakusten du Susa argitaletxeok zer-nolako konpromisoa duten argitaratzen dituzten liburuak direla eta. Inork ez luke inprenta geldituko poema bakar batengatik, bada, haiek egiten dute.

• POESIA LIBURU BATEN AURKEZPENAN POESIAREN BEHARRAREN ALDARRIKAPENA IZATEN DELA ESAN DUZU NOIZBAIT. ZERGATIK DA BEHARREZKOA POESIA?

Aurkezpena prestatzen ari nintzela horrelako behar izugarria sentitu nuen poesia justifikatzeko. Ez dakit poesia beharrezkoa den, baina niretako beharrezkoa da. Batzuetan, orainaldiak gaina hartzen dit, tsunami baten azpian sentitzen naiz, eta poesiak halako baztertxo bat eskaintzen dit, humanoa, tempo goxokoa, abegikoa, gertatzen denari begiratzeko. Beste leku batzuetan aurkitzen ez dudana gizatasuna aurkitzen dut poesian.

• HAIN DA BEHARREZKOA, ERROTATIBAK GELDITZEA LORTZEN DU...

Bai, baina salbuespena da hori (barreak).







Teodoro Goñi,

“Emigrantea gaizki badago joan egiten da, baina gustura badago bere inguruko jendea eramaten saiatzen da”

Ezaguna da XX. mendearen hasieran Estatu Batuetara emigratutako euskaldunen ibilia, eta artzain horiek irabazi zuten fama ona. Baina ezezagunagoa da Australiara edo Kanadara joandako emigrazioa.

Gure bizilagun batzuk izan ziren horien artean, besteak beste, Gartzaron, Suarbe, Eltzaburu zein Lizasokoak. Gartzarongo bentako Teodoro Goñi 1964ko abenduan joan zen Kanadara, 19 urte zituela. Basoa ateratzen 12 urte eman zituen 'Lake Superior' (Goiko Lakua) inguruan, bertan ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen. Haiekin guztiakin itzuli zen 1976an.

• NOLA OROITZEN DITUZU GARTZARONEN BIZI ZINENEGO GARAIAK?

Gartzaronen gutxi batzuek soro

handiak zituzten, baina gu ezin ginen nekazaritza edo abeltzaintzatik bizi, baratze bat baino ez genuen. Aita arotzazen, eta postari lanak ere egiten zituen Basaburuan, baina bihotza kaltetzen hasi zitzaion eta 15 urterekin laguntzen hasi nintzen. Hasieran bizikletaz eta gero motorrarekin banatzen nituen korrespondentziak 16 herritan. Igoa, Arrarats edo Beruetera igotzeko lanak izaten nituen.

• ZERGATIK ERABAKI ZENUEN KANADARA EMIGRATZEA?

Garai hartan ez genuen zer egin handirik hemen. 19 urte nituela Kanadara joateko aukera suertatu zitzaidan, eta ez nuen bitan pentsatu. Ez zen erraza bertara joatea, zuzeneko senide batek edo enpresari batek erreklamatu behar zintuen

herrialdean sartu ahal izateko. Suarbeko Manuel Espinal han zegoen, eta berak lagundu ninduen Torontoko enpresari batekin hitz egin eta ni erreklamatu.

• NOLA IZAN ZIREN LEHENENGO EGUNAK KANADAN?

Txanpinoi fabrika batera joatekoa nintzen, baina ez nuen lan hori hartu, eta Montrealera abiatu nintzen, senideak baintuen bertan. Eguberrietan Aldazko gizon bat joaten zen senideen etxera, eta lana ematen ahal zidala aipatu zidaten. Nik ere haiekin igaro nituen eguberriak, eta urtarrilaren 10ean Toronto iparraldeko basoetara joan nintzen berarekin, egurrean lan egitera.

• LEHENAGO INOIZ ARITU ZINEN



Teodoro eta bere alaba, Kanadiar jatorrikoa ▲



BASOAN LANEAN?

Ez, ez nekien basoan lan egiten ezta ingelesez mintzatzen ere, eta Aldazko honek asko lagundu ninduen, aita bat bezala izan zen niretzat. Denbora pasata, Montrealen metroa egin behar zutela eta, hara joan zen bera, baina ni basoan geratu nintzen. Metroa amaitzean Leitza inguruko koadrila batekin igo zen basoetara.

• ZENBAT EUSKALDUN EGON ZINETEN INGURU HARTAN?

300 inguru, gehienak Zaraitzu, Leitza, Ezkurra, Zubieta ingurukoak. Denak enpresa berean aritu ginen, 'Abitibi Paper'. Haietako asko Frantzia aritzen ziren lehenago, baina lan baldintzak askoz hobekak ziren Kanadan, eta horregatik joan ziren.

• ETA ULTZAMA ALDEKO BATEN BAT ERE BAI?

Bai, aurretik Suarbeko Espinal han zen, eta Eltzaburuko Altuna bat ere joan zen. Ni hara joan eta bizpahiru urtera Lizasoko Amerikanoen etxeko Liska familia nirekin harremanetan jarri zen. Oilasko fabrika bat zuten orain hipika dagoen lekuan, baina gaizki joan zitzairen eta lau anaia eta gurasoak joan ziren Kanadara, nire enpresako nagusiarekin hitz eginda eta berak erreklamatu. Emigrantea gaizki badago joan egiten da, baina gustura badago bere inguruko jendea eramaten saiatzen da.

• EGURALDIA, ORDEA, GOGORRA?

Hotz handia egiten zuen, -19 eta -25 gradu arteko tenperatura izaten genuen normalean, elurraren gainean lanean beti, udan izan ezik. Orduan beroa eta eltxoak izaten genituen. Askok gaizki pasatzen zuten, eta azala ere erortzen zitzairen hotzaren eraginez, baina niri ez zitzaidan inporta, gustura aritzen nintzen.

• NOLAKOA ZEN LANA?

Etetik urrun aritzen ginen, basoa atera ahala geroz eta urrutiago, eta barrakoi batzuetan egiten genuen lo. 'Buldozer' makinek egun gutxitan izotzezko errepideak egiten zituzten, egunez zuhaitzak bota eta ibilbidea lautu egiten zen, eta gauez ura bota, bidea izoztu zedin. Lakuaren inguruan egiten genuen lan, eta egurra laku gainera botatzen genuen. Urtzaroan, izotza urtzen zenean itsasontziek sarea botatzen zuten, hemengo arrantzaleek bezala, eta sarearekin egurra arrastaka eramaten zuten paper-fabrikaraino. Gerora debekatu egin zuten hori, egurraren partikulek arraina kutsatzen baitzuten.

• EUSKALDUNEK LANGILE ONAK IZATEAREN FAMA HARTU DUTE LEKU ASKOTAN, KANADAN ERE BAI?

Oso ona. Hango telebistak ere erreportaje bat egin zuen enpresan aritzen ginen euskaldunen inguruan. Langile onak, istripurik kasik izaten ez zutenak... Portugalgo eta Italiako langileak ere joan ziren hara, eta harreman handia egin genuen.

• KANADAKO BASOETAN HARTZ UGARI DAUDELA ESATEN DA...

Bai, hartz asko ikusi genituen, baina ez genuen arriskurik. Lo egiten genuen barrakoiaren ondora hurbiltzen ziren, zakarra uzten genuen tokietara. Askotan hartzak ikustera joaten ginen, 20 edo 25 hartz hurbiltzen baitziren atera. Otsoak ere ikusi nituen lakuaren inguruan.

• ASTEAN ZE HAR LAN, ETA ASTEBURUETAN?

Larunbat eta igandean jai izaten genuen, eta asko ehizan eta arrantzan geratzen ziren asteburuan. Ni ezkondu egin nintzen, eta etxera bueltatzen nintzen asteburuetan.

• NOLATAN EZKONDU ZINEN?

Gartzaronen ezagutu nuen emaztea, gipuzkoarra da. Uda batean etxera joan zen eta han ezagutu genuen elkar. Kanadan nengoela etxera itzuli nintzen aldi batean, beregan joan nintzen bisitan eta nirekin Kanadara joateko eskatu. Halabeharrez nirekin ezkondu behar zen Kanadansartzeko, bestela ez baitzuten paperak eskuratuko. Montrealen ezkondu ginen, eta han nituen senideak eta lankideak joan ziren ospakizunera, Zaraitzuko familia baten jatetxean egin genuena. Torontora joan ginen bizitzera, eta ondoren Thunder Bay herrira. Hainbat jatetxetan aritu zen lanean.

• 1976AN ITZULI ZINETEN NAFARROARA, HIRU SEME-ALABA ZENITUZTELA.

Kanadar naziotasuna duten hiru seme-alaba ditugu bai. Azkena jaio eta hilabete batzuetara itzuli ginen, besteek 2 eta 7 urte zituztela. Egia esan, Kanada uzteak penatu egin gintuen. 'Copeleche' enpresan hasi nintzen lanean Iruñean, baina laster arrainarekin hasi ginen, eta ongi joan zitzaigun. Oraindik ere jarraitzen dugu horretan lanean, nik erretiroa hartu dut, baina hiru seme-alabek egiten dute lan.

• KANADARA ITZULI ZARA ORDUTIK?

Bai, behin itzuli nintzen, alaba ezkondu eta eztei bidaia Kanadara egin zuenean.

ALABA: Senarrak eta biok Kanadara joatea erabaki genuen. Aitarekin lan egin zuten batzuk ezagutu genituen: Liska familiakoak, italiar bat... ama lanean aritutako jatetxeetan ere egon ginen. Eta Thunder Bay-n geundela aita sorpresaz agertu zen, oso polita izan zen.



Maria Josefa Gelbentzu (I),

Auzako Goitikoetxean sortutakoa dugu Maria Josefa Gelbentzu, Gelbentzunean (Bixenten etxean) hazia eta munduan barna ibilitakoa. Joan den irailean egun batzuk pasatzera etorri eta elkarrizketatu genuen Maria Santos bere koinataren etxean. Adinean sartua dugu Maria Josefa, baina osasun bete-betean ikusi genuen. Buru argia eta ilusioz betea, “dezakedan artio segituko dut lanean, oraindik badezaket eta”

Zu Goitikoetxean sortua omen zaitugu.

Bai, Goitikoetxean sortu nintzen 1935eko martxoaren 18an, baina laster aldatu ginen gurasoek egin zuten etxe berrira, Gelbentzunea edo ezagunago den Bixenteren etxera. Gu zortzi senide gara, **Goitikoetxean** jaiotakoak, Patxi, Jose Ramon, Maria Victoria, Pakita eta ni gara eta **Bixenten etxean** jaiotakoak, Victorino, Pedrito eta Joxe Mari.

Nor zenituen gurasoak?

Bixente Gelbentzu Imaz, Larraintzarkoa. Eta ama, Micaela Goienaga Oiaregi, Alkozkoa, **Bastagillenekoa** maistartokian jaioa eta **Argiñenean** hazia.

• HAURTZAROA

Zure haurtzaroan zer gustatzen zitzazun egitea?

Maistra izatea eta jostatzea, ikaragarri. Eta beste aldetik, eskulanak egitea eta dibujatzea (marraztea) Orduan bitarteko handirik ere ez genuen, ez lapitzik, ez pinturarik, eta klarionarekin karreteran marraztea gustatzen zitzaidan, eta paretetan ere idazten nuen; eta gogoan dut nola gure amak ultzi bat eman zidan horrengatik, bazter guzietan aritzen bainintzen.

Zer nolako oroitzapenak dituzu eskolaz?

Onak. Oso onak. Maistra Joaquina Beuntza genuen nik inoiz izan dudan maistrarik hoberena nire ikasketa guziak kontuan hartuta. Gehien-gehienik ikasi dudana tokia izan da.

Oso fuertea zen, beharko, adin guzietako hurrak izaten zituen eta!

Eta zer ikasten zenuten?

Eskolan, katixima eta historia sakratua beste gauzen artean; eta Elizara eramaten gintuen bisita egitera, eta Jesukristoz ere hitz egiten zigun. Ez naiz oroitzen egunero edo astero zen, baina maiz izaten zela bai.

• HAURRETAN ERLIJIOA

Eskolan katixima, apezak ere erakutsiko zizuten ba!

Bai, bai, baino erranen nuke eskolan baino gutxiago ikasten genuela.

Eta elizako kontuz zer erran diezadakezu?

Nik hamabost urte bete nituenean, konfesatzerakoan apezak erran

“ dezakedan artio segituko dut lanean ”

zidan: aizu, Maria Josefa, nahi nuke zu katekista izan zaitezen eta haur ttikienei erakutsi erlijioa. Ni izugarri harritu nintzen, hemen jende oso prestatua baitzegoen, ni baino hobeki. Baina niri erran zidan eta moja joan artio hor aritu nintzen haur ttikiei erakusten.

Erljio mundurako nork eman zizun gehiago, apezak edo maistrak?

Argi hitz egin behar bada, maistraren aldetik berotasun gehiago sumatuen apezarengandik baino.



Maria Josefa Gelbentzu Goienaga (P. Oskotz fotografoa)



Zazpi kolegio kendu zizkigun Castrok



Harrigarria! Hori horrela da?

Bai, bai, apezari ez zitzaion atsegin moja izan gintezen. Niri, hain zuzen, urte batzuk berenduago joateko aholkatzen zidan. Baina, nik erabat erabakia hartua nuen Santa Teresita bezala izan behar nuela eta 15 urtetan joan nintzen moja.

• DONOSTIAN MOJA

Nola du izena zuen kongregazioak?

Religiosas del apostolado del Sagrado Corazon de Jesus. Kolonbian apostolinak deitzen gaituzte. Gure kongregazioa Kuban sortu zen. Jesuita batek sortu zuen.

Eta Donostiako beren komentuan sartu zinen, estudiatzera.

Bai, Donostiara joan nintzen baina

▼ Goitikoetxea. Hemen sortu zen Mara Josefa Gelbentzu (P. Oskotz fotografoa)



estudiatu ez nuen Donostian egin. Nik herriko maistrarekin bordatzen ikasi nuen eta oso ongi gainera. Eta Donostian bordatzen hasi nintzen, etxerako (komenturako) eta kanporako. Eta mojak bordatuak saldu egiten zituzten (maindireak, mahai-oihalak ...) Horrela 21 urteak artio aritu nintzen, Kubara bidali ninduten artio. Honetan utziko dugu gaurkoz.



Txurdan

Hiztegia

- **Bitartekoa:** medio
- **Marraztu:** dibujatu.
- **Ultzia:** zanparrada
- **Azterketa:** examen
- **Ikastaro:** ikastaldia
- **Erreboluzioa:** iraultza
- **Logela:** dormitorio

KUBAKO KONTUAK

Kubara. Habanara?

Ez, ez. *Sagua la Grande* deitzen den hiri batera. Eta bertan bi urte egin nuen. Ikasi nahi genueno, idazketaz azterketa egin eta oso nota ona eman zidaten, herriko maistrak erakutsitakoarekin. Eta ikasten hasi nintzen. Hainbat ikastaro egin nituen, haurrentako irakasle izateko.

Zer gai zenuen begiko?

“Metodoglobaldeenseñanza”zeritzan bat, Rene Cabrerarena. Irakurtzen ikasteko zen eta metodo horren parekorik ez dut ezagutu. Askoz ere

beranduago saiatu naiz liburu horien bila baina ez ditut opatu ahal izan.

Zenbat urte egin zenituen Kuban?

Bost urte, 1961. urtea artio.

Egonaldi motza. Zergatik?

Fidel Castrok gerra irabazi zuen, 1959ko abenduaren 31n sartu zenean Habanan. Eta honek erreboluzioa ekarri zuen eta gauzak azkar aldatzen hasiziren.

Zuendako ere erreboluzioak eragina izan zuen.

Bai, 1961. urtean erlijiosoen kolegio guziak bereganatu zituen. Eta gure kolegioan hasieran gure esku utzi zituzten logelak, sukaldea eta horrela, baina gainerako guziaz jabetu zen Estatuak. Zazpi kolegio genituen eta denak kendu zizkigun.

Eta Kuba utzi behar izan zenuten.

Bai, ez berehala; baina Kuba utzi behar izan genuen, ez genuen deus egitekorik eta. Puerto Ricora joan ginen denak. Eta handik leku desberdinetara lekualdatu gintuzten. Niri Dominikar Errepublikara joatea egokitu zitzaidan.



Gure amonaren

LEHENA LEHEN

Lehena lehen, hori da duda-mudan zabiltzanean egin behar duzuna. Zein aukeratu? Zein lan egin aurrena. Zeini edo zeri lotu? Horrelakoetan, **enuxu-banuxu** (1) ibili beharrean zer egin, zeri lotu, zeraukera..., pentsatugure amonak esaten zuena: **Lehena lehen** (lena len) Eta hori egiten baduzu lanaren erdia egina duzu. Beste esaldi bat ere amonari ikasi nion: hasiak egina dirudi. Hori da kontua, **hasi-ez-hasi** bazabiltza lanaren batean, izugarritzko egin beharra irudituko zaizu, berealdikoa! Noizko bukatu? Esan bezala, **lehena lehen** erabakiz, erdia egina baldin bada, bigarren esaldia, **hasia egina dirudi** delakoa aplikatuz, esan genezake ia-ia dena egina dagoela.

Gure amona etorri zaigu hizpidera eta amonaz hitz egitea ere ez dago batere gaizki. Gehienok ezagutu izan ditugu geren amonak, baina etxean beharbada ez. Gure amona-amatxi-amandrea-amañi, amaren aldekoa, ez genuen gure etxean, baina bai herrian. Beraz, ez genuen hurbil-hurbilekoa nahiz amonaren etxera egunero-egunero joaten ginen. Eta ez, ez ginen joaten, beharbada, amona bisitatzera, egunero-egunero, osabak eta lehengusuak bisitatzera joaten baikinaren batez ere, ez amon-aitonak ikustera. Baina amona beti han izaten zen, lanean, eta gure ardura berekin: Kontuz! Ez egin hori! Nahi duzu ogi bustia!...

Gure amonak ez zigun musurik ematen, lehengo estilokoa baitzen. Amonak losintxak eta hitz ederrak gutxi, eta neurtuak. Arian arian beti, inoiz gelditu gabe. Bazkaltzeko ere astirik gabe, besteak zerbitzatzeko. Ez, ez zuen musurik ez ferekarik. Baina izan eskalea ate joka, izan arrotza, izan auzoa, han izanen zenuen, denei beren beharren galdezka, denei eskuzabaltasunez eta

imintzio handirik egin gabe ematen edo laguntzen. Zuberoako kantu batek dioen moduan, **etxekoandere zabal**, eskuzabal, atea irekia denentzat.

Bai, **lehena lehen**, besteak lehenik eta gero ere bai; beti aurrena egin beharra eta ez nahia; egitekoa, lehenik; eta hau nahi dut eta hori ez zait gustatzen edo horrelakoak konjugatzen ba ote zekien gure amonak?

Amona lasaiaren irudia, bere izate isila, langilea eta serioa; eta bigarren aldiz ere esan dezadan, lasaia, dut gogoan eta noiznahi zait burura etortzen: harrigarriki, gaztetxotan igarri ere egiten ez nuena, bere izatea beti eraman dut ene baitan; geroztik zenbat aldiz ez ote zait bere izatea burura etorri?

Esan bezala, aurreko bi esaldi horiekien soilik ene amonaren argazkia aurrea ekarri dut: **lehena lehen eta hasiak egina dirudi**.

Gaur, nik, ardo frexkoarekin egingen dut topa ene amona lasai-lasai haren oroitzapenetan.



Txurdan

(1) **Enuxu banuxu**, ez naiz-banaiz esan nahi du Zuberotarren zuketan, sinezko zuketan. **Hago, hago, enuxu banuxu, eta egingen dituk lanak!** Fundamendu handirik gabe, denbora galduz, duda-mudan. Gure aita dut gogoan hau esaten zigunean. Harengandik ikasia dut esaldi hau.

(2) “Lehena lehen, gero geroak”: Hau dugu esaldi osoa, oso arrunta dena.

Hiztegia

Losintxa: lausengua, halago

Fereka: Caricia

Imintzioa: Gure artean ixtia izanen litzateke esanahi beretsua lukeen hitza.

Topa egin: Brindar



Amona Joxepa, kolegioan egon zenean, uniforme politarekin. ▲

'Basurdetxoaren xendan' Sentimenduz beteriko



Atezko bailarari buelta emanaz mendi martxa egin zuten maiatzean Aroztegitik abiatuta. Leku ederrak zeharkatzeaz gain, sentimendu ugari batzen dituen martxa izaten da, eta ateztar guztiei omenaldia egiteko probestu zuten aurtengo edizioa; daudenei eta joan direnei.

Ireber elkarrekin kultura bultzatzeko lan handia egin du azken urteotan: Atezko eguna, euskal jaia, Olentzero... antolatu izan ditu, eta baita mendi martxak ere Atez inguruan. Urte asko da 'Herriz herri' martxa antolatzen dutena, bailarako herri guztiak elkartuz.

Aurtengoan 'Basurdetxoaren xendan' izena hartu zuen ibilbideak, proposamen horrek bizilagun guztiak ados jarrita. Eta Aroztegitik hasi eta buka, 20 kilometroko itzulia egin zuten, goizeko 8etan hasita.

50 pertsona elkartu ziren, aurreko egunetako eguraldia oso txarra izan arren. Eta eguna goibel esnatu arren, egun alaia izan zen, alaitasunez omenaldia egin nahi baitzieten azken urtean utzitako Natalia, Dionisio eta Isabeli.

Ibilbidean zeharkatzen diren oroigarrietan geldialdiak egin zituzten denek, eta argazki bana atera. Hala egin zuten Josu Santxoren errautsak dauden haritzean, "Gora Josu!" ozen bat oihukatuz. Ondoren, Arraldegaineko Joarren omenezko zuhaitzean brindis alai bat egin zuten, Edorta aitak eramandako xanpain freskoarekin, eta "Goragutagutarrak! Gora Atez! Gora Basurdetxoaren xendan!" oihukatuz. Eta azkenik, Aroztegitik ateratako 50 lagunei beste 20 elkartu zitzaizkien Beuntzan, bertan hamaitakoa hartu ostean. Eta ia 100 pertsona elkartu ziren gero Izarpe kanpinean bazkaltzeko.

IBILBIDEA:

'Basurdetxoaren xendan' Atezko herri eta baserri guztiak zeharkatzen ditu, Amalain eta Labaso izan ezik. Ezezagunak diren paraje ederretatik igarotzen da, bukoliko bezala ere definitu ditzakegunak: Ardi latxak Patxiren borda inguruan, behi piriniarrak Iriberriko larreetan, Beratsaingo haritzia, Beuntza eta inguruko parajeek Beriain eta Aralarreara dituen ikuspegiak...

Itzulera Atez eta Ultzama arteko mugatik egiten da, Beuntzalarreko baserrietatik eta Egillortik igaroz ibilbideko punturik altuenera iristeko, Arraldegaina. Bertatik eder ikusten dira Saioa eta Xuriain mendiak. Gelbentzuko lurretan inkursio txiki bat egin ostean Aroztegitik bidea hartzen da beriz.

Bereziki polita da ibilbidea udaberrian egitea, elorriak loretan daudenean, pagoak hosto berdeak atera berri, zelaien berde bizian...



▲ Josu Santxoren errautsak dauden haritzean



▲ Joarren omenez landatutako zuhaitzean



▲ Isabelen oroigarria daukan zuhaitzean



Kalifornia zati bat

Soinujolearen semea pelikula estreinatu zen apirilaren 12an, Bernardo Atxagaren eleberrian oinarrituta, eta harrera ona izan du. Fernando Bernuesek zuzendutakoa, Lizasoko hipika eskolan grabatu zituzten irudi batzuk, historian Kaliforniako rantxo batean gertatzen direnak, hain zuzen ere. Ultzama zergatik aukeratu zuten galdetu diogu bertan produktore lanetan ibilitako Mattin Añorgari.

Mattin Añorga- Soinujolearen semearen produktorea

• ZER MODUZ HARTU DUTE SOINUJOLEAREN SEMEAK ZINEMATAN?

Gaia berezia da, Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritua, oso irakurria; gainera, antzerkietan ere izan da, beraz nahiko itxura ona zeukan. Nik lehenengo aldiz Giza Eskubideen Zinemaldian ikusi nuen, eta han puntuazio polita izan zuen, egia esan, jendeak gustura hartu du.

• LOKALIZAZIOAK BILATZEAN, BESTEAK BESTE, DATZA ZUEN LANA ETA, HAIN ZUZEN ERE, SOINUJOLEAREN SEMEAN, HAINBAT IRUDI ULTZAMAN GRABATU ZENITUZTEN. ZERGA-TIK?

Lizaso hipika eskolan hartu genituen, bai. Baserri antzekoren bat behar genuen, non animaliak, bereziki zaldiak, izan behar ziren. Gu Donostian gaude finkatuta eta gure grabazioaren plangintza Gipuzkoan eta Nafarroan ezarri genuen. Hori bezalako leku baten bila Ultzamakoa topatu genuen, sekulako lekua, oso atsegina. Egia da beste aukeraren bat ere bagenuela, baina ez zuten zerikusirik. Lizasokoa oso handia da, zabala, lekua geneukan gure materiala bertan gordetzeko, hango jendea oso atsegina izan zen. Filmean ikustean oso polita geratzen da, niri asko gustatzen zait zati hori, eta merezi du leku horiek ezagutzea.

Zuzendariak berak nahiago zuen bertan egitea gainontzekoetan baino, ez dakit zer ikusi zuen, baina hura aukeratu zuen.

• BERAZ, POZIK EMAITZAREKIN?

Bai, oso ongi joan zen dena. Zinemara zoazenean batzuetan ez da nabaritzen atzean dagoen lan guztia, hilabeteak ematen ditugu grabatzen, egun oso batean grabatzen duzuna pelikulan 4 minutu besterik ez da, orduan, bada go lana. Guk pozik bukatu genuen eta jendea pozik geratu dela ematen du.

• LIZASON GRABATUTAKOA KALIFORNIKO RANTXO BATEAN GERTATUTAKOA DA ISTORIOAN, ESTATU BATUETARA JOATEA HASIERATIK BAZTERTU

ZENUTELA PENTSATZEN DUT...

Denok nahi genuen Kaliforniara joan baina ezin zen (barreak). Bai, aurrekontu bat duzu, eta horretan mantendu behar zara, horri begira bilatu behar dituzu gauzak. Kalifornia eta Euskal Herria biak berde-berdeak direla dute amankomunean; beraz, errazagoa izan zen hori gertu aurkitzea.

• ZALDIAK, HIPIKAKOAK ERABILI ZENITUZTEN? EZ DA ERRAZA IZANEN ANIMALIEKIN GRABATZEA...

Bai, Lizasoko zaldiak erabili genituen, eta esperientzia bitxia izan zen. Bada, azpijokoak badaude, adibidez, emeak barruan uzten dituzte eta arra kanpoan eta alde batetik bestera ibiltzen dira. Hori filmean urrunera pasatzen ikusteko egin genuen.



Soinujolearen semea pelikularen irudia, Lizason grabatua ▲

Aritz Gorostiaga Eskubi, bideo ekoizlea

hemen lan hemen bizi



‘Frankoren bunkerrak’ dokumentalaren egile latasarra

Hainbat dokumental eta bideoen egilea dugu Aritz Gorostiaga latasarra ‘Bi ahizpak bideo’ ekoizpen enpresa autonomoaren bidez. Bideo mota ugari grabatzen ditu, dokumentaletatik hasita eta ezkontzetaraino; eta Latasan, etxean editatzen ditu.

Bi dokumental argitaratu ditu berriki, memoria historikoaren ingurukoak biak ala biak: ‘GURSerako bidea’ eta ‘Frankoren bunkerrak’.

• BIDEOGINTZAN ‘BI AHIZPAK BIDEO’ ZARA, NOIZTIK?

Urte batzuk daramatzat honetan. Lehenago beste enpresa batentzat aritzen nintzen, baina krisiaren eraginez itxi zen, eta autonomo bezala hastea erabaki nuen

• HAINBAT DOKUMENTALETAN ZUREIZENA IKUSIDUGU, AZKENA ‘FRANKOREN BUNKERRAK’.

Bai, Aurizko Udalaren proiektu hori eman zidaten, eta orain arte horretan aritu naiz. Baina honekin batera Gurseko kontzentrazio eremuaren inguruko dokumentala ekoizten aritu naiz. Nafar ugari eraman zituzten Oloron ondoko eremu nazira, eta Nafarroako Gobernuak sustatutako lana izan da.



▲ Aritz Gorostiaga, Latasako etxe parean

• BIZITZEKO ADINA EMATEN DU?

Bai, lana dibertsifikatu beharra dago, baina interneterako bideo ugari ateratzen zaizkit. Lehenago ezinezkoa zentelebistarako lanak egitea, enpresa handiek egiten zituzten, baina orain ez da horrenbesteko azpiegitura behar, eta nire moduko jendeak egin ditzake. Hala ere, materiala berriro beharra dago eta garestia da, baina askotan elkarlanean aritzen gara ni bezalako autonomoak proiektu handiagoetan lan egiteko

• AZKEN DOKUMENTALARI HELDUZ, ZER DIRA FRANKOREN BUNKERRAK?

II. Errepublikak Pirinioetan defentsa lerro behar zela proiektatu zuen, baina Francoren altxamenduaren ondoren, berak hartu zuen proiektua. Jaizkibeldik Mediterraneora 10.000 eta 15.000 bunker artean eraiki zituzten langileen batailoiek, Burgosekoa bezalako espetxetik



▲ Aritz Gorostiagaren azken dokumentala

esklabo eramandakoek.

Pirinio guztietan 169 erresistentzia zentro daude, bunker ugari dituztenak, eta Nafarroan horietako 52 daude. Aurizko Udalak historia hori denon eskura jarri nahi izan du, eta arkeologo talde baten bidez ikertu ostean, bunkerrak elkartzeko hiru ibilbide markatu dituzte, interpretazio zentro bat jarri eta dokumental hau egin.

“

**Jaizkibeldik
Mediterraneora
10.000 eta 15.000
bunker artean eraiki
zituzten langileen
batailoiek**”

• SEKULA ERABILI EZ ZIREN BUNKERRAK, EZTA?

Hala da. Eskasia garaiak ziren, gerraostean hasiera, eta dinamitan, porlanean eta abar dirutza gastatu zuten. Avilako artxibo militarren jaitsi ginen, eta ingeniari militarren mapa ikaragarri onak aurkitu genuen, topografia lan bikaina egin zuten. Bunker batetik bestera begi bidezko komunikazioa zuten, hau da, Jaizkibeldik Mediterraneorako defentsa lerro osoa komunikatuta zegoen.



Lucia Oscoz Macaya,

“Mendiarekiko dudan maitasuna berretsi dut Mexikon”

Ultzama-Puebla konexioa egin dugu Lucia Oscozekin. Izan ere Mexikora joan zen duela hilabete batzuk bere kirol hezkuntzako ikasketak amaitzera. Korrikalari, mendizale eta oro har kirolzale sutsua dugu Lucia, eta Mexikon ere mendian eta korrika aritu da ultzamarra.

● NONDIK HARTU DUZU MENDIZALETASUNA?

Aitarengandik etorri zait. Txikia nintzenean, aita oso gustuko zuen Arañotzera igotzea, eta asko joaten ginen anai-arreba guztiak. Egia esan, nik ez nuen bat ere gustuko, baina behartu egiten gintuen. Eta orain guztiz kontrakoa da, niri izugarri gustatzen zait, eta ni naiz aita eramaten duena.

● KIROL UGARI PROBATU DITUZU, BAINA ORAIN MENDI LASTERKETETAN EGONKORTUAGO?

Bai, eskubaloia egiten hasi nintzen, atletismoa gero, eta batxilerra ikasten hasi nintzenean Zegama-Aizkorri “junior” lasterketa egin nuen, eta hirugarren sailkatu nintzen. Orduan ikusi nuen mendi lasterketetan ongi ibiltzen ahal nintzela. Baina

triatloia egiten hasi nintzen ere, Ultzamakoa eta beste hainbat eginez. Saltoki taldean sartu eta Espainiako txapelketa ere egin nuen, baina mendi lasterketak ere egiten nituen bitartean.

● KILOMETRO BERTIKALEN ESPAINIAKO KOPA IRABAZI ZENUEN, ESPEROTAKO LORPENA IZAN ZEN?

Joan zen urtean lesio bat izan nuen belaunean, eta kilometro bertikaletan zentratu nintzen. Hasieran lesioaren ondoriozko irtenbidea izan ziren lasterketa hauek, baina lagun batekin entrenatzen hasi nintzen eta Espainiako kopako lehen lasterketan probatzera joan ginen. Oso gogorra zelakoan beldurtuta geunden, eta presiorik gabe aritu ginen. Lehenengo eta bigarren sailkatu ginen, sorpresa ederra hartu genuen!

● ETA MEXIKON ERE KIROLA EGITEN JARRAITU DUZU?

Hasieran deskonektatu egin nuen, korrika egitera bakarrik ateratzea arriskutsua zela ere esaten zidaten batzuek. Baina jende kirolaria ezagutu nuen eta haiekin joaten hasi nintzen.

Ederra izan da hemengo mendi ugari ezagutzea, eta baita Mexikon alpinismoa ulertzeko duten moduz jabetzea hemengo mendi-giden bidez. Oso ezberdina da. Alpinismo ikastaro bat egin nuen, eta bertako jendearekin mendira joaten hasi nintzen.

● ETA 5.700 METROKO SUMENDI BAT ERE IGO ZENUEN, ZER MODUZ?

Ederra izan zen. Mendi-gidariak hara joateko esan zigun, neskalagunak

“

5.747m-ko altuerako sumendi bat da “Pico Orizabal” edo “Iztactéptl”, laba izoztua daukan munduko sumendi bakarra, eta Mexikoko mendirik altuena

”



Lucia Mexikoko mendi lasterketan topatutako mariatxiekin ▲



utzi zuela eta deskonektatu beharra zuela, eta oso giro filosofikoan egin genuen, kuriosoa izan zen. - **5.747m-ko altuerako sumendi bat da "Pico Orizabal" edo "Iztactéptl", laba izoztua daukan munduko sumendi bakarra, eta Mexikoko mendirik altuena.**

Igoerari dagokionez, oso gogorra egin zitzaidan. Aklimatazioa ongi egin nuen, 3.000 eta 4.000 metrotik gorako mendi ugari eginak bainituen lehenago, baina buruko min handia sartu zitzaidan. Goizeko hiruretan hasi genuen bidea, eta hotz ikaragarria egiten zuen; gainera, seietan elur-ekaitz batek harrapatu gintuen, bidea arriskutsua zen, eta ia ez nituen eskuak sentitzen, baina berreskuratu egin nituen. Gorputzaldi txarra nuen, baina burugogorkeriaz igo nuen eta

egunak argitu zuenean, eguzkiak bizitza eman zidan.

Oso esperientzia gogorra izan zen, baina alpinismoaren eta bizitzaren inguruan hausnartzeko balio izan zidan, eta mendiarekiko dudak maitasuna berretsi nuen.

• MENDI LASTERKETA BAT ERE EGIN ZENUEN, ZER MODUZ ESPERIENTZIA?

Oso barregarria izan zen. Hara iritsi eta mariatxi talde bat jotzen hasi zen irteerapuntuan. Oso ongiantolatutako lasterketa izan zen, nazioarteko zirkuituan baitago. Lasterketan, ni eta beste korrikalari batzuk galdu egin ginen, eta atzera bueltatu behar izan ginen. Hirugarrena eta laugarren neskak gindoazen elkarrekin, eta

besteak amore eman zuen. Nik gogor jarraitu nuen, esperientzia bizi nahi nuelako, eta asko sufritu ondoren seigarren sailkatu nintzen.

Oso polita izan zen, jende pila bat korrika zein ikusten, eta europarrak ikusteaz asko harritzen ziren eta hitz egitera hurbiltzen ziren.



Orizabal mendirako bidean ▲

Zorionak Zorionak!


Zorionak Mihaela!!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Oihan!!





IÑIGO IBARRA

Idazlea

“Irakurtzen eta idazten -zer esanik ez- sekulako gozatua hartzen dut”

Iruindar Odiertatua, irakur daiteke Iñigo Ibarren Twitterko profilean. Iruñean jaio zen idazle eta bertsolari hau, baina Anozibarren bizi da orain dela hamar urtetik, eta Odieta bailara eta Iruñea dira, hain zuzen ere, bere azken liburuen eszenatokietako batzuk. Kenavo, zaku bete urre! ez da idatzi eta argitaratu duen lehengo liburua Iñigok, lehen, besteak beste, kaleratu zituen Aulkipeko sekretuak, Odieta, izkutuko altxorren aztarrikan, Iñaki Vergara argazkilarirekin batera, edota bertsolaritzarekin lotutako hainbat lan (Iñigo Ibarra Nafarroako bertsolari txapelketan finalista izan zen 2005an). Horretaz aparte, musika talde zenbaiti, bertso eta letrak eginak dizkie, Leihotikan taldeari bereziki.

Orain aurkezten digun eleberria, Kenavo zaku bete urre! gazte literatura arloan kokatzen bada ere, edozeinek, helduek ere, irakur ditzaken gazte literaturako liburu horietako da. Abenturaz, misterioz eta bidaiaz betetako eleberria, umorez eta amorez ziprinduta,

Iñigo etorri zen arratsalde batean liburutegira horretaz guztiaz mintzatzeraz.

Iruindar Odiertatua zaren aldetik esan behar dugu eleberria hasten dela Iruñean, hortik Odieta eta Odietatik mundura... Horretaz gainera, protagonista bertsolaria da. Zurekin loturaren bat?

Kar-kar-kar, hala esanda ni neu izan nintekeen, baina ez. Kontua da, ezagunak zaizkidan agertoki ezohikoak baliatu nahi nituela eleberria garatzeko. Nolabaiteko erakargarritasunaren bila. Hartaz,

eskura nuen inguru hurbilari zukua ateratzen saiatu naiz.

Gazte literatura arloan zure lehenengo lana izan da Kenavo, zaku bete urre!, oker ez banago. Zergatik? Eskatu dizut istoriaok, nahi zenuen gaztendako istorio bat kontatu?

Argialetxearen gomendioz. Hasieratik gazteak nituen helburu nagusitzat, baina Indiana Jonesen pelikulekin bezala, helduentzat ere atsegina izateko asmoarekin. Horrek, ordea, ez batzuentzat ez besteentzat

gelditzeko arriskua zeukan. Eta azkenean, gazte literaturaren aldeko apostua egitea erabaki nuen.

Abenturazko nobela dugu, bidaia asko, erritmo biziaz kontatua... Eta misterio bat. Zer kontatu ahal diguzu spoilerrik gabe?

Erritmoa eta bizitasunari garrantzia eman diot. Halaxe, hasi bakarrarekin, Anek etxean zituen bertso zahar batzuetan aipatzen den pirata baten altxorra izanen dute jo-muga. Batetik bestera hura bilatzeko ahalegin erora emanik arituko diren hiru gazteak. Ane,



▲ Iñigo Ibarra



Mikel eta Marilyn. Liburuaren azalean agertzen den bretoierazko gutunak ibilbidearen pista ugari ematen ditu.

Umorerik ez zaio falta liburuari...

Ez da umorezko liburua, baina umoreak toki nabarmena du. Izan ere, ni pertsona alaia naiz, hemengo ziri, hango txantxa... eta bertsotan alderdi hori behar bezala landu ez izanaren arantzatxoa sartua nuen. Lan honekin, nire buruarekin nuen zor hori nolabait kentzea lortu dut.

Bikote protagonistaren erlazioa sendotzen da liburuan zeharNortzuk dira protagonistak eta nolakoa haien arteko harremana?

Hogei urteren bueltan dabiltzan gazte alai eta ausartak dira. Munduaren edertasunaz gozaten dakitenak. Abentura honen aitzakian elkarrekin egun ugari pasako dituzte, ordu asko, eta gertutasun horrek harremanetan berezkoa duen magia sortzea dakar. Pozak eta minak korapilatzea.

Zure eleberriak, baita zuen ipuinak (adibidez 39 idazle agertzen dena) irakurriz ematen du zu gozaten zarela idaztean... Zer ematen dizu literaturak?


Sormenarekin zerikusia duen guztia gustatzen zait. Eta irakurtzen eta idazten -zer esanik ez- sekulako gozatua hartzen dut. Hizkuntzaren magia eta aberastasunaren transmisioan etxetik haragoko katebegia izan naitekela pentsatze hutsa, luxu bat iruditzen zait.

Bukatzeko, baduzu lan berri bat bistan, jarraituko duzu gazte literaturan?

Bai, liburu bat hasia dut, baina standby egoeran daukat. Nire iritziz, hasiera ona eta bukaera ezin hobeagoa duen eleberria da. Kar-kar-kar. Trama garatzea falta zaio. Baina oraingo liburu honek ongi ala gaizki funtzionatuko duen jakin arte

itxaron nahiko nuke. Horren arabera erabakitzeke, gazte literaturarako edo helduen literaturarako moldatuko ote dudan. Beraz, kostako zaio etxetik ateratzea.

 **Patxi Irurzun**
Utzamako liburuzaina



INIGO IBARRA

*D'un Arden, Louis Guarnier, a
Mortel, en un temps.*

*Al Kevan he para etre he tawarn, d'asat
d'ec, h'asat, he Anz a zo k'annad a' Coued
G'antec a, m'asat, en K'annec, a zo he t'ant
ant Breiz Han, he m'asat, he a' f'ent-
K'annec. E'ed he he he p'romet, he he a' he
La Fortnac a zo he t'ant he he t'ant d' he t'ant
m'asat. E'ed he, he t'ant m'asat, he
e he he d'ec he d'ec he he he he he he he
he he he he he he he he he he he he he
he he he he he he he he he he he he he*

*he he he he he
Breiz Han, m'asat.*

**KENAVO,
ZAKU BETE URRE!**

PAMIELA
etxea

2019ko apirila

Gure alderdian, apirilean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ANUE Leazkue

Ane Luis Perez, apirilaren 18an sortu zen, Patxi eta Oihaneren alaba, **Errekaldean**.



▲ Ane, Leazkueko haur ttikia

ATETZ Egillor

Miguel Oartzun Eguarats, apirilaren 4an jaio zen, Miguel Angel eta Soniaren semea.



▲ Migel, bere gurasoekin, Egillorren

ULTZAMA Iraizotz

Lucas Toldea Suarez, apirilaren 6an sortu zen, Alvaro eta Rominaren semea. **Herriko ostatuan**.



▲ Romina eta Alvaro, pozez gainezka

Ezkontzak:

Apirilean ez zen ezkontzarik izan gure alderdian.

“ Zorionak gurasoei ”

Heriotzak:

ULTZAMA Iraizotz

Maria Matxiñena Gorosterrazu, **Probintzeneko** etxekoandre zaharra, apirilaren 19an hil zen, 92 urtetan.



▲ Maritxu Matxiñena

ULTZAMA Iraizotz

Antonio Satrustegi Narvaez “Dorre”, **Dorreko** semea, apirilaren 11n hil zen, 87 urtetan.



▲ Antonio, Dorre

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



V. ARGAZKI LEHIAKETA



Joan zen urteko argazki irabazlea, Alfredo Garcia-Falces Larrañetarena

1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

Ametza Kultur Elkarteak V. argazki lehiaketa antolatu du

Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea **ekainaren 16an** bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu. Pasaia soilak ez dira onartuko. **Jendea, bertako lanak, kirolak...** denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Baldintza plegua amezti.eus webgunean